



ITSASONDOKO
UDALA



ITSASONDOKO GAZTELEKU - ko

ARAUTEGI OROKORRA

(Hezitzailearekin erabiltzeko)

DESKRIBAPENA

Gaztelekua itsasondoko nerabeei zuzenduriko zerbitzua da. Bertan, aisialdirako ekintza desberdinak proposatzen dira eta hezitzaile baten laguntzaz edota modu kolektibo ez-gidatu batean, aurrera eramaten dira. Maila indibidualean autonomia eta erantzukizuna garatuz, komunitate mailan aritzeko gaitasunak eskuratzea da helburua eta gazte hauek herriko parte hartzaile bihurtzea.

NORENTZAT

Gaztelekua 12 urtetik aurrera erabiltzeko espazioa da.

SARBIDEA

Bertara sartu ahal izateko honakoa izan beharko dugu kontuan:

- 12 – 14 urte bitartekoak **hezitzailearekin** sartu beharko dira derrigorrez.
- 14 – 16 urte bitartekoak **gurasoen txartelarekin** bakarrik sartu ahalko dira, betiere jarrera ona izaten badute. Jarrera txarraren aurrean (zalapartaka ibili, liskarrak izan, gauzak jaso gabe utzi, materiala ardura gabe erabili...) arreta adineko edonork dei diezaieke eta udalak neurriak hartu ahal izango ditu.
- 16 urtetik aurrera espazio honetan sartzeko **txartela** egin ahalko da.

Nola egingo dugu sarbide txartela?

16 urtetik aurrera egin ahalko da txartela eta ITSASONDOKO GAZTELEKU – ko ARAUTEGI OROKORRA (Modu autonomoan erabiltzeko) arautegian jasotzen dira beharrezko datuak.



**ITSASONDOKO
UDALA**



ESPAZIOA ERABILTZEKO ARGIBIDEAK

Ordutegia eta erabilera egunak

- 12 – 14 urteko nerabeen kasuan, ostiraletan 17:00etatik 20:00etara erabili ahalko dute zerbitzua.
- 14 urtetik gorakoen ordutegia eta erabilera egunak ITSASONDOKO GAZTELEKU – ko ARAUTEGI OROKORRA (Modu autonomoan erabiltzeko) arategian jasotzen dira.

Erabilera partekatua

- Gaztelekurako lehentasuna udalak izango du bertan antolaturiko ekitaldietan.

Erabilera arauak

- Erabiltzaileek errespetuzko jarrera izan beharko dute espazioarekiko, hezitzailearekiko eta gainerako parte hartzaileekiko.
- Bertan dagoen materiala errespetatu behar da eta tresnak erabili ondoren bere lekuan utzi beharko dira, txukun jasota. Gaztelekua hurrengo egunetan erabiltzeko txukun utziko dugu.
- Lokalean ezingo da erre, ezta ere alkoholdun edaririk kontsumitu.

GARBIKETA

- Hileko azken ostiraletan erabiltzaile guztien artean garbiketa, txukunketa orokorra, egingo da.
- Gaztelekuko saioa bukatu baino 15 minutu lehenago erabiltzaile guztiak jasotzen hasiko dira, jolas edota ekintzari amaiera emanaz.
- Erabiltzen duenak garbitu egin behar du, baina garbiketak taldean egingo dira.
- Hilean behin udaleko garbitzaileak pasako dira Gaztelekua garbitzera, baina **garbitasuna mantentzea erabiltzaileen ardura izango da.**



**ITSASONDOKO
UDALA**



MANTENUA / HORNIKUNTZA

- Materiala falta bada edo iradokizunen bat badago, udalean abisatu beharko da.
- Behar diren konponketak eskaera ofizial bidez egingo dira udaletxean.